

M/B

# AMAIA URANGA

ABESLARIA

“Ez didate kantatzearren  
ordaintzen”



Mikel Laboa hil eta egun batzuetara elkartu ginen Amaia Urangarekin. “Oinarriak ezarri zituen, baina joan egin da eta horrelakoetan zerbait apurtzen zaizu barruan”. Oraindik ere oinarrietan sakondu ahal izango zuen da Urangari buruan gelditu zaion galdera. Berak, behintzat, lanean jarraitzen du, egiteko dituenak orain arte egindakoak baino hobeak izango direlakoan.

Onintza Enbeita

**U**RTE ZAILAKAUKERATU ZENITUZTEN KANTUAN HASTEKO.

Gauza guztietarako ziren urte zailak. Hala ere, Euskal Herrian asko kantatu izan da beti; bi dauden lekuan korua dago. Gure aitak abesbatz batean kantatzen zuen eta amak oso belarri fina dauka. Galarazita geneukan gaizki kantatzea. Ikasten eta lanean ari ginen eta gaueko 19:00etatik 24:00etara entseatzen genuen.

ETXETIK DATORKIZU KANTATZEKO ZALETASUNA, BERAZ.

Izeba batek oparitutako gitarra batekin hasi nintzen.

PENTSATU ZENUEN INOIZ HELDU ZAREN LEKURAINO IRITSIKO ZINETENIK?

Ezta hurrik eman ere! Lanean ari ginen taldeki-de guztiok eta diskoa grabatzeko proposamen bi jaso genituen. Lehenengoarekin ez genuen traturik egin eta Juan Carlos Calderonen proposamenarekin joan ginen grabatzera. Han hasi zen guztia beste forma bat hartzen.

ORDURAKO IKASKETAK AMAITUTA ZENITUEN?

Ikasle txarra nintzen ni. Ingelesa gustatzen zitzaidan, eta gitarra neure kontura jotzen nuen. Aitari gustatzen zitzaion egiten genuena, baina diskoarekin arazoak etorri ziren. Madrileran joan beharra genuen grabatzera eta hiru seme-alaba zituen proiektuan sartuta. Gainera, hasieran, lagundu egin behar izaten ziguten Estibalizek 15 urte baino ez zituelako. 21 urtera arte ez ginen adinez nagusiak izango, eta ez ziren garai errazak horrela ibiltzeko.

ETA EUROVISION JAIALDIA HELDU ZEN.

1972aren amaieran izan zen hori. Zafirotik deitu ziguten Eurovision jaialdira joateko. Sergio aparejadore ikasten eta lanean ari zen, eta berak, Estibalizek eta Rafak utzi egin zuten taldea. Jose Ipiña eta Carlos Zubiaga sartu ziren taldean.

BAINA GERO TALDEA UTZI ZENUEN ALDI BATERAKO.

Bai, 1984an utzi nuen taldea. Urte bi hartu nituen neuretzat, musikatik aparte. Behar nituen. Nik uste dut gauza bati guztiz emanda gaudenean derrigor hartu behar dugula deskantsua.

MUSIKATIK APARTE, BENETAN APARTE, EGON ZARA INOIZ?

Seguruenik ez. Neuretzat hartutako denboran kolaborazioak edo egingo nituen, baina 1986ra arte ez nintzen agertokian agertu. Pablo Milanesekin egin nuen orduan kolaborazioa, eta zuzenean agertu nintzen. Hortik aurrera, bakarrik ere atera nituen diskoak. Eta gero, El Consorcio sortu genuen zerbait dibertigarriagoa egin gura genuelako.

MOCEDADESEN HASIERAN IBILITAKOEK SORTU ZENUTEN TALDEA.

Bai, inoiz hiltzen ez diren gauzak badaude, eta behin elkartu ginenean hasi ginen izenak bilatzen. Ahalik eta barregarrienak topatu gura genituen. Consorciok interesen batuketa esan gura ei du, eta hor ibili ginen: Cosecha del 68, The mamas and the papas eta halako izenak auke-ratzen. Azkenean Consorciorekin geratu ginen.

“Nik uste dut gauza bati guztiz emanda gaudenean, deskantsua behar dela”



HASIERAKO URTEETARA BUELSTATUZ, EUSKAL HERRIAN BESTELAKO MUGIMENDUAK SORTU ZIREN NEURRIAN, KONTRA ERE IZANGO ZENUTEN JENDEA.

Gu kontziente ginen. Bagenekien zein musika mota ari zen hemen lantzen eta guk zein musika mota egiten genuen. Pisu handia zeukan euskal musikak orduan, batez ere *Ez dok 13* inguruan sortutako mugimenduak. Etxean izeba batek AEBtik ekarritako diskoak entzuten genituen eta beste bide batzuetatik ere lortzen genituen diskoak. Horien eraginez sortu zen taldea. El Coliseo Albain eman genuen lehen kontzertua, Ingenieritza eskolako tunaren inaugurazioan. *Ez dok 13*ren garaia zen, kantautoreena, euskaldunena... baina aretoa bete egin genuen. Zenbait zirkulutan espainolizatzen gintuzten. Ez genuen euskaraz kantatzen eta horrek zeresana eman zuen.

EZ DUZU INOIZ PENTSATU EUSKARAZ KANTATZEA? Kantatu izan dut euskaraz, baina euskara bera ikasten saiatu arren, zaila egin zait eta ez dut berba egiteko beste ikasi. Hala ere, euskaraz kantatu nuenean ere kritikak izan nituen. Nik euskara defendatu dut eta haren aldeko ekintzetan parte hartu dut ahal izan dudan guztietan.

ZURETZAT ZER DA KANTATZEA?

Urteekin aldatu egiten da eta norberak daukan bizimoduaren araberrako sententzioa da. Niretzat kantatzea terapia da. Gauza bat esango dizut hala ere: niri ez didate kantatzearen ordaintzen. Niri ordaindu egiten didate leku batera joateko, han lo egiteko, dena prest izateko... baina kantatzea ordaintzeko ez dago dirurik.

BATZUEK ESANGO DUTE AHOTS HORREKIN ONDO KANTATZEA EZ DELA MERITUA.

Ahotsa gurasoek eman zidaten, eta ez da nire meritua, baina kantatzen eta espresatzen neuk ikasi dut. Komunikazioa ez dit inork eman. Hori norbere kualitatea da, eta aldi berean landu egin behar da. Neure egitekoa izan da hori guztia lantzea.

ORAINDIK ERE ZUEN KANTUAK GAZTE ASKOK KANTATZEN DITUZTE.

Zergaitik ez? Ez dira iraungi. Kanta batzuk hilezkorak dira. Zenbait sentimendu behin eta berriro errepikatzen dira.

BADAUKAZU PROIEKTU BERRIRIK BURUAN?

Nik beti esaten dut diskorik onena ez dela azkena; diskorik onena oraindik grabatzeko dagoena da. ●